

## Nire Bigarren Liburua "Euskaltzaindia" Bilduman

Jaun-andreok, agur t'erdi

Duela bi urte, 2009ko ekainaren 10ean, *Estigmatizados por la Guerra* liburuaren aurkezpena bukatu ondoren, "laster arte" esan eta elkarri agur eginik, sakabanatu ginen toki honetan. Nire orduko ametsa bigarren liburu hau 2010ean argitaratzea zen, baina azken urteotako diru-krisialdia dela-ta, ezin izan dugu burutu asmo hori gaur arte.

Lehen liburuaren helburua euskal atzerriratze edo exilioa izan zen; bigarrena, aldiz, XX. mendeko euskal literatura da. 424 orrialdeko lan mardul hau, hildako lagun batzuei eskainitako oparia da. Ez litzateke zuzena izango ez aipatzea nire bizitza luzean bidelagun izan nituen zortzi apaiz jakintsu eta maitagarrien izenak: Jesús San Miguel, Andoni Basterretxea, Joxe M<sup>a</sup> Aranalde, Juan M<sup>a</sup> Lekuona, Pablo Bilbao Aristegi, Donato Arrinda, Ander Bilbao Agirrelezeaga eta Antonio Añoveros Bilboko apezpiku ohia.

Aldi berean, liburu honen beste xede bat, Euskaltzaindia, 92 urteko ama adintsu baina emankorrari neure omenalditxo eskaintzea izan da, aurkibidean agertzen diren 23 idazle ospetsuen izenak goraiatuz: 11 gipuzkoar, 8 bizkaitar eta lau Iparraldeko. Beren lanak aztertzea litzateke egin diezaiekegun goratzarrerik ederrena, idazle hauen izenak ahanzturaren ilunpetik argira ekarriz. Bidenabar, euskal literaturaren aurkako aurriritziak hautsi nahi izan ditut, lau haizetara zabalduz gazteleraz eta ingelesez, euskaldunok badugula geure literatura, alegia, euskaraz idatzitako literatura.

1989an, Estatu Batuetatik Euskal Herrira itzuli nintzenean (bost liburu argitaratu eta neure ikasketak amaitu ondoren) ez nintzen geldirik egon, eta lanean jardun nuen atertu gabe nire artikuluak Euskal Herriko aldizkarietan argitaratzen, batez ere, Gasteizko *Sancho el Sabio*-n. Geroago azken 20 urteotan, barnean izan ditudan gogoetak hustu nahian, Euskaltzaindiak oraintsu eman didan abaguneaz baliatuz, uzta jori hau bildu dut liburu honetan.

1.- Zazpi zati nagusitan sailkatu dugu idazlan hau eta bi bizkaitar abade jakintsu eta itsastarrekin ematen diogu hasiera aurkibideko zerrendari: R.M<sup>a</sup> de Azkue eta Tx. Agirre. XIX. gizaldiaren azkenetan eta XX. lehen hamarkada ilunetan, biek egin zuten lan eskerga bezain sakona, euskal kulturaren alde, euskararen egoera latzak samina eragiten zielako. Euskal hizkuntza iraganeko kontu zaharra zela eta euskararen heriotzaren ezkilen durundi mingarriak bazterturik, sutuki lan egin zuten euskal literaturaren alde. Sail honetan aipatzen ditugu baita ere J.M<sup>a</sup> Etxeita, F. Arrese Beitia, "Kirikiño" eta J. Etchepare.

2.- Urteak aurrera joan ahala, heldu zen zorioneko II. Errepublika. Sail honetan "Lizardi" eta "Orixe" gipuzkoarren izenak azpimarratu nahi nituzke. Zalantza izpirik gabe esan daiteke, Guda Zibilak etenarazi ez balu II. Errepublika garaiko euskal Pizkundea, gure Literatura urrutira helduko zela, idazle bi hauen eta beste askoren bitartez: "Lauaxeta", "Oxobi", A. Anabitarte, etab.

3.- Gerra geroztikako idazle berritzaileen artean, J. Mirande, G. Aresti, X. Lete, "Otsalar", M. Lasa, eta J.A. Artze hautatu ditut. G. Aresti bilbotarra zoritxarrez gazterik hil zen 42 urterekin, beraz ez zuen ibilbide luzerik egin ahal izan. Baina haren nortasunak izugarrizko erakargarritasuna izan zuen idazle gazte batzuen artean. Euskara hil ala biziko egoeran zegoenean, euskal kontzientziaren sustatzailerik eraginkorrenetakoa bihurtu zen, eta euskara zapaltzen zuten egitura politiko eta sozialen aurka tinko jardun zuen borrokan.

4.- Laugarren multzoan "Iratzeder", J.M<sup>a</sup>. Lekuona eta B. Gandiaga agertzen zaizkigu; hirurak elizgizonak eta Euskal Herrian errotuak: lapurtar beneditarra, gipuzkoar apaiza eta bizkaitar frantziskotarra. Euskaigintzak orduan bizi zuen giro latz eta zitala gainditu nahian, nolabaiteko "Mester de Clerecía" osatu zuten, poesia jantzia eta bizia, Jainko zalea, lirikoa, gizaki eta naturaren aldekoa, euskalduna eta arnasa handiko metafozez hornitutakoa.

5.- Bizi dugun giroan, B. Atxaga eta R. Saizarbitoria azpimarratu ditut beste askoren artean, euskara gaur egungo kultura adierazteko gai dela frogatzen saiatu direlako. Eskerrak idazle hauei gure hizkuntza eta euskal literatura itxuraz diruditen baino gehiago aldatu dira gure artean.

6.- Euskara batuaren arloan, Mikel Zarate, Lezamako seme jatorra, izan dut beti neure eredu eta gidari. Gizon apala, laua, xaloa, lehiakorra eta ameslaria zelako, maite genuen denok. Euskal idazleen artean, bizkaieraren defendatzaile sutsua zen, baina ez zen inoiz bizkaitarkerietan erori eta eredu batu baten aldekoa ere izan zen. G. Arestiren antzera, hau ere gazterik zendu zen 46 urterekin.

7.- Eta amaitzeko, ahozko euskal literatura eta Aita Zavala. Jesuita tolosar honek ahozkoatasunaren alorrean utzitako ondarea, alegia, -315 liburukiz hornitutako *Auspoa* bilduma, -Euskal Herrian inoiz egin den lanik zabalena da. Gure Antoniok, ilunpetik argitara atera zuen altxorra ikaragarritzkoa da; erraldoien lana, langile porrokatuen ondarea eta "otso bakartien" altxorra. "Otso bakartia" diot, baina, baita ere, herri xehearekin lanean ondo konpontzen zen gizaki berezia. Bera joan zen, baina *Auspoa*-k hor dirau betirako.

Nire azken hitzak izan bitez eskerrak emateko. Gizalegezkoa da jasotako laguntza aitortzea, beraz, eskerronekoa izatea dagokit. Eskerrik asko, bada, A. Urrutia euskaltzainburuari, M. de Renobales emazteari eta lagunaren artean: L. White, K. Otegi, F. Larruquert eta N. Altuna bihotzekoei. Mila esker.

Gorka Aulestia Txakartegi  
Gasteiz, 2011.~VI~6